

TELEFONO MUGIKOR SEGURUAGOA IZATEKO AHOLKUAK



Gure telefono mugikorretan informazio asko dago. Gailua galtzeak, lapurtzeak edo birus batek kutsatzeak eragina izan dezake zure informazioan. Bete itzazu aholku hauek segurtasuna areagotzeko eta zibergaizkileen jarduna oztopatzeko.

SEGURTASUN-KOPIAK

Egin itzazu aldiro-aldiro.

LAN-SAIOAK

Itxi itzazu hasitako lan-saio guztiak, egiaztapena eskatzen duten zerbitzuen kasuan.

LOKALIZAZIOA ETA EZABATZEA

Instala ezazu lokalizaziorako eta datuak ezabatzeko urruneko aplikazioa.

EDUKIA

Ondo pentsatu zer eduki gordetzen duzun.

FABRIKATIK DATORREN BABESA

Ez kendu inoiz fabrikatik datozen babesgarriak.

IMEI

Toki seguru batean idatzi kodea.

BLUETOOTH

Beharrezkoa denean baino ez aktibatu Bluetooth konexioak.

WIFIA

Arretaz jokatu Wi-Fi sare publikoetara konektatzen bazara.

APLIKAZIOAK

Behar eta ezagutzen dituzunak besterik ez instalatu; eta beste ezer baino lehen, gainbegiratu baimenak.

SEGURTASUN- SOFTWAREA

Instalatu software bat zure mugikorrean.

SISTEMA ERAGILEA

Izan ezazu beti gaurkotuta.

BLOKEATZEA

Aktiba ezazu PIN bidez, hatz-marka bidez... gailura sartzeko aukera.

